



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Eta Hitza Jainko zen”

2021eko urtarrilaren 3a
Eguberri ondo 2. igandea (B)

Joan 1, 1-18

Hasieran bazen Hitza. Hitza Jainkoarekin zegoen eta Hitza Jainko zen. Hasieran Jainkoarekin zegoen Hitza. Gauza guztiak beronen bidez egin ziren, eta egindakotik ezer ez da berau gabe egin. Hitzarengan zegoen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argi horrek ilunpetan egiten du argi, baina ilunpeek ez zuten onartu. Agertu zen gizon bat Jainkoak bidalia; Joan zuen izena. Testigu izatera etorri zen, argiaz testigantza egitera, beraren mezuaren bidez sinets zezaten. Ez zen hura argia, argiaren testigantza egin behar zuena baizik. Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituena. Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egina izan arren, mundukoek ez zuten onartu. Bere etxera etorri zen, baina beretarrek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, ordea, berarengan sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. Hauek ez dira giza odolekoak, ez eta gizakiaren borondatez sortuak ere, Jainkoarengandik jaiokoak baizik. Eta Hitza gizon egin zen eta gure artean jarri bizitzen. Ikusi dugu haren Jainko-aintza, Aitarengandik maitasun eta egiaz bete datorren Seme bakarrari dagokion aintza. Joanez beronetaz egin zuen testigantza, oihu eginez: “Honetaz ari nintzen ni, Nire ondoren datorrena nire gainera dago, ni baino lehenagokoa baitzen esan nuenean”. Izan ere, guztiok hartu dugu haren betearen betetik, eta maitasuna maitasunaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez eman zen; maitasuna eta egia, berriz, Jesus Mesiasen bidez. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren baitan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak eman digu haren berri.

Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituena.

JAINKOAREN GIZA AURPEGIA

Jose Antonio Pagola

Laugarren ebanjelioa hitzaurre berezi batez hasten da. Gorazarre baten antzekoa da; lehen mendeez gero, bizi lagundu zien horrek kristauei Jesusen baitako misterioan sakontzen. Fede xumez hartuko bagenu, gaur ere lagunduko liguke Jesusengan era sakon eta biziagoan sinesten. Baieztapen nagusi batzuk bakarrik aipatuko ditugu.

«*Jainkoaren Hitza gizon (haragi) egin da*». Jainkoa ez da mutua. Ez da isilik gelditu, betiko bere Misterioan hesiturik. Jainkoak bere burua komunikatu nahi izan digu. Hitz egin nahi izan digu, bere maitasuna esan, bere egitasmoa argitu. Jainkoaren Egitasmoa, haragi egina, da Jesus.

Jainkoa ez zaigu agertu kontzeptu eta doktrina handiosen bidez, adituek bakarrik uler ditzaketenez. Jainkoaren Hitza Jesusen bizitza bihotzetik haragitua da, jende xumean ere ulertzeko eran, Jesusen bizitzari darion ontasunaren, maitasunaren eta egiaren aurrean hunkitzeko gai direnek ere ulertzeko eran.

Jainkoaren Hitz hau «*gure artean kanpatu da*». Urruntasunaren egin galdu du. Jainkoa «gizon (haragi)» egin da. Gure artean bizi da. Harekin topo egin ahal izateko, ez dugu zertan irten mundutik, Jesusengana hurbildu besterik ez. Hura ezagutzeko, ez dugu zertan teologia ikasi, Jesusekin sintonizatu besterik ez, Jesusekin bat egin besterik ez.

«*Jainkoa ez du inork inoiz ikusi*». Profetek, apaizek, lege-maisuek asko hitz egiten zuten Jainkoaz; haietako inork ez zuen, ordea, ikusi haren aurpegia. Beste horrenbeste gertatu ohi da gaur gure artean: Elizan asko hitz egiten dugu Jainkoaz, baina ez dugu ikusi inork. Jesusek bakarrik, «*Aitaren altzoan den Jainkoaren Semeak bakarrik ezagutarazi digu*»,

Ez genuke ahaztu behar. Jesusek bakarrik adierazi digu nolakoa den Jainkoa. Jesus bakarrik dugu iturburua Jainkoaren Misteriora hurbildu ahal izateko. Jainkoaz ditugun zenbat eta zenbat ideia eskas eta ez-gizatarrak behar ditugun desegin eta ahantzi, Jesusengan agertu zaigun Jainko horrek erakar eta lilura gaitzan!

Nola aldatzen den guztia, sumatzen dugunean Jesus Jainkoaren giza aurpegia dela! Dena lauago, dena argiago gertatzen da. Orain badakigu nola begiratzen digun Jainkoak sufritzen ari garenean, nola ibiltzen den gure bila galtzen garenean, nola ulertzen eta barkatzen digun uko egiten diogunean. Jesusengan agertu zaigu Jainkoaren «*onginahia eta egia*».